

Burrunba hotza entzuten da

Inauteriak aurten goiz-goiz ospatuko dira, udaberriko lehen ilargi betea martxoaren 21ean izango delako, ostiralarekin.

JON ORDOÑEZ

Donostia

Eguberriak ez dira oraindik amaitu, eta inauteri hotsak entzuten hasi dira jada aurten. 2008. urtea goiztiarra izango da ilargiaren egutegiaren arabera finkatzen diren ospakizunetan (Eliza katolikoaren egutegi liturgikoaren arabera). Ostegun mehea urtarilaren 31n izango da eta Aste Santua martxoaren 20an hasiko da. Goiztiarra izateaz gain, orde, nahasia ere izango da egutegia. Izan ere, kalderero jaiak Kandelaria egunaren ondorengo larunbatean ospatzen direnez (Kandelaria aurten larunbatez da, otsailaren 2an), aurten inauteriak amaitu ondoren ospatu beharko lirateke, otsailaren 9an. Santa Ageda eguna ere inauterietan bete-bete izango da, inaute astearte edo asteartitan.

Zergatik dator, orde, aurten hain goiz inauteria? Euskal folkloreak sortuko duen nahasmenaren harira, *Dantzak.com* webguneak zergatia bilatu du. Aurten ilargi egutegiak berezitasun bat du, eta horrek eragin du guztia. Inauteriak eta Aste Santua udaberriko lehen ilargi betearen arabera ezartzen dira, eta aurten ilargi betea martxoaren 21ean hasiko denez, udaberriko lehen egunean, laster helduko dira ilargiaren egutegian oinarritzen diren ospakizunak ere.

Ia inoiz baino goizago izango dira aurten inauteriak eta gainontzeko jai horiek. Martxoaren 21a ostirala dela kontuan hartuta, soilik larunbata baldin bada eta ilargi betea egun horretan suertatzen bada ospatuko dira egun horiek lehenago; egun bat lehenago. Mikel Aranburu Urtasunek *Dantzariak* aldizkarirako egin zuen kontaketa berreskuratu du *Dantzak.com* webguneak, eta Oier Araolaza arduradunak zehaztu duenez, guxtienek 2050. urtera arte ez dira inauteriak aurten bezain goiz ospatuko. Ostegun mehea 2009an otsailaren 19an izango da, eta 2010ean, otsailaren 11n.

ALDAKETAK EGUTEGIAN. Aurten sortuko den egutegi nahasia aintzat hartuta, hainbat lekutan ospakizunak eguneko aldatzea erabaki dute. Donostian, esate baterako, kaldereroen jaia bi astez aurreratuko dute, urtarilaren 26rako, inauteriak hain baino lehen ospatzeko. Iruñen gauza bera egingo dute.

Altsasun ere antzeko arazoa izan dute. Sakanako herri horretan ohitura handia dago inauteriak eta Santa Ageda eguna ospatzeko. Inauteriko momotxorroak inaute asteartean ateratzen dira kalera, euren larru eta adarrekin. Aurten, orde, inaute asteartean Santa Ageda eguneko kintoen puska eskearekin bat egiten duenez,

Ilargiaren arabera soilik egun bat lehenago gerta liteke inauteria aurten baino lehen ospatzea